



AGINDUA, Hezkuntza sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko irakasmailetakoko euskarazko ikasmaterialei inprimatuak sortzeko laguntzak esleitzen dituen (EIMA 4 modalitatea).

Euskarazko ikasmaterialei inprimatuak sortzeko laguntza-bideetara dei egin zuen Hezkuntza Sailak 2025eko urriaren 7ko Aginduz (2025eko urriaren 24ko EHAA). Hori dela eta, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuko zuzendariak egindako behin betiko ebazpen proposamena kontuan izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2025eko urriaren 7ko Aginduan adierazitako prozedurari jarraituz, EIMA 4 modalitatean guztira banatzeko dauden 85.000 euroko diru-partidatik, Agindu honen I. eranskinean agertzen diren dirulaguntzak esleitzea.

Esleitutako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:

- Lehenengo ordainketan, dirulaguntzaren % 20 ordainduko da, Agindua jakinarazi eta onuradunak esleitutako dirulaguntza onartu duela egiaztatuta ostean.

Onuradunek hamar eguneko epea izango dute esleitutako dirulaguntza onartzeko; Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera. Onartzen ez badute, eskabideari uko egiten diotela ulertuko da.

- Dirulaguntzaren gainerako % 80a, Aginduen IV. eranskineko 6.3 puntuan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuta ondoren ordainduko da.

Bigarrena.- Agindu honen II. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei dirulaguntzarik ez ematea, laguntza-deialdiaren baldintzaren bat betetzen ez dutelako.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen ez duen Agindu honen kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza sailburuaren aurrean, Agindua Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

Hezkuntza sailburua

Maria Begoña Pedrosa Lobato



I. eranskina: esleitutako dirulaguntzak

Espediente zenbakia	Proiektuari esleitutako dirulaguntza	Dirulaguntza	1.ordainketa (%20)	2.ordainketa (%80)
001	Pedagogia eta diseinua	6.690,52	1.338,10	5.352,42
	ENEKO BESA DIAZ	6.690,52	1.338,10	5.352,42
003	JOKI GARBY Enpatia I	8.515,21	1.703,04	6.812,17
	BEÑAT RAMOS ELORZA	8.515,21	1.703,04	6.812,17
004	Kilimak 5	8.971,38	1.794,28	7.177,10
005	Kilimak 6	8.971,38	1.794,28	7.177,10
008	EKI LH 4 Musika	8.363,15	1.672,63	6.690,52
009	EKI LH 5 Musika	8.363,15	1.672,63	6.690,52
010	EKI LH 6 Musika	8.363,15	1.672,63	6.690,52
	ELKAR-IKASTOLAK ZERBITZUAK SL	43.032,20	8.606,44	34.425,76
011	Garelako izango dira 6. unitatea	6.538,46	1.307,69	5.230,77
	HONDARRIBIKO KULTURA ONDAREAREN ZAINTZE ETA HEDATZERAKO ARMA PLAZA FUNDAZIOA	6.538,46	1.307,69	5.230,77
013	Arte eszenikoen hiztegi interdisziplinarra: dantza, antzerkia eta analisi eszenikoa	7.450,81	1.490,16	5.960,64
	BEÑAT URRUTIA PUJANA	5.215,56	1.043,11	4.172,45
	UNAI IZQUIERDO VAZQUEZ	2.235,24	447,05	1.788,19
014	Matematika DBH4	6.386,40	1.277,28	5.109,12
015	Matematika DBH4 - Gidaliburua	6.386,40	1.277,28	5.109,12
	LANDER INTXAUSTI ARRIOLABENGOA	12.772,81	2.554,56	10.218,25

II. eranskina: dirulaguntzarik hartuko ez duten ikasmaterialak

Espediente zenbakia	Eskatzailea	Proiektuaren izenburua	Arrazoia
002	BEÑAT RAMOS ELORZA	JOKI GARBY Enpatia I	Eskatzaileak eskabidean atzera egin du
012	BASQUE CENTER FOR MACROMOLECULAR DESIGN AND ENGINEERING - POLYMAT FUNDAZIOA	Abentura polimerikoa	Eskatzaileak eskabidean atzera egin du
006	ELKAR-IKASTOLAK ZERBITZUAK SL	Kili kili 1	Ez du Aginduak, 2025ko urriaren 7koak bere IV. eranskinean ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu
007	ELKAR-IKASTOLAK ZERBITZUAK SL	Kili kili 2	Ez du Aginduak, 2025ko urriaren 7koak bere IV. eranskinean ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu